



2018KO APIRILAREN 24KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hemezortziko apirilaren hogeita lauan, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Begoña Bueno Barranco, Iñaki Estensoro Sarasola, Amagoia Naldaiz Mingo, Jaber Arrasate Aierbe, Azeari Andonegi Beristain, Ioseba Hernandez Madinabeitia, Marian Zufiria Apeztegia, Imanol Aran Barandiaran, Leire Mendia Arana eta Urtzi Iruin Arruti.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2018ko martxoaren 27an egindako bilkurako akta.

Andonegi zinegotziak (EH Bildu) esaten du bosgarren puntuan, kreditu aldaketari buruzkoan, esandakoa ez dela ondo jaso. Hor proiektuaren berri eman zela esaten denean, estalpearen proiektuaren berri eman zela jarri beharko lukeela, bestela proiektu orokorraren berri eman zela ulertu daitekeelako.

Aipamen hau egin ondoren, gainantzean akta idatzita dagoen moduan onartzen da, aho batez.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- INFORMAZIOA ELKARTRUKATZEKO GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN IZENPETUTAKO HITZARMENAREN "D3" ERANSKINA ALDATZEA.-

Udal honek lankidetzaz hitzarmena izenpetu zuen 2014an Gipuzkoako Foru Aldundiarekin bi erakundeen artean informazioa elkartrukatzeko.

Hitzarmen horren eranskinetako bat D3 eranskina da.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasuneko zuzendari nagusiak urtarrilaren 29an emandako 12/2018 Ebazpenaren bidez, "Gizarte zerbitzuetarako zerga informazioa" izeneko D-3 eranskinaren II. bertsioa onartu du.

Hori horrela udalak ere D3 eranskinaren II. bertsio hori onar dezala eskatzen du.

Hau honela, gaia aztertu ondoren, eta ogasun batzordearen proposamenaren aurrean, osoko bilkurak, aho batez, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin informazioa elkartrukatzeko izenpetutako hitzarmenaren D3 eranskinaren 2. bertsioa onartzea erabakitzen du.

IV.- ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN INGURUAN GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN HITZARMEN BERRIA IZENPETZEA ETA ARAUTEGIA ALDATZEA.-

Gipuzkoako udaletako eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren (GFA) Gizarte Politikako Departamentuko ordezkariak erabakitako Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Erakunde Arteko Mahaiak Etxeko Laguntza Zerbitzuari buruz lortutako akordioak betetzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta dagokion Udalak Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko izenpetu beharreko lankidetzak-hitzarmenaren eredu adostu da. Horrenbestez, menpeko pertsonen Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko xedez udalek Gipuzkoako Foru Aldundiarekin orain izenpetuta duten hitzarmena ordezkatu du.

Hitzarmenaren arabera, Foru Aldundiak Etxeko Laguntza Zerbitzuari egindako ekarpenaren %25a zerbitzuan egin beharreko hobekuntzak finantzatzeko bideratuko da, hain zuzen, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Erakunde Arteko Mahaiak onetsitako hobekuntzetarako.

Honek gaur egun dagoen etxeko laguntza zerbitzua arautzen duen udal arautegiaren aldaketa dakar berekin baita ere eta halaber etxeko laguntza zerbitzua emateagatik kobratzen diren prezioen ordenantza fiskal.

Hau honela, gaia aztertu ondoren, eta gizarte zerbitzuetako batzordearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aho batez, honako akordio hauek hartzen ditu:

- 1.- Etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzarmen berria, bere espedientean dagoena, izenpetzea.
- 2.- Etxeko laguntza zerbitzuen arautegiaren aldaketa hasierako izaeraz onartzea.
- 3.- Arautegiaren aldaketaren hasierako onarpenaren iragarkia jendaurrean jartzea 30 egun balioduneko epean, alegazio ondorioetarako.
- 4.- jendaurreko erakustaldi denboraldian, inolako erreklamazio edo alegaziorik aurkeztuko ez balitz, akordioa behin betikoa bihurtzat joko da espreski hartutako akordio berri baten beharrik gabe.

V.- ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA: ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA.-

Aurreko puntuarekin lotuta, etxeko laguntza zerbitzuen arautegiaren aldaketaren ondorioz etxeko laguntza zerbitzua emateagatik dagoen tasaren aldaketa ekartzen da osoko bilkurara bere onarpenerako.

Aldaketa nagusia da, zerbitzua emateagatik ordaindu beharrekoak gehieneko muga bat izango duela, eta muga hau da gehieneko 15€ ordainduko dela.



Gaia aztertu ondoren eta ogasun batzordearen proposamenaren aurrean, osoko bilkurak, aho batez, honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- Etxeko laguntza zerbitzua emateagatik kobratzen den tasari dagokion ordenantza fiskala hasierako izaeraz onartzea.
- 2.- Ordenantza fiskalaren aldaketaren hasierako onarpenaren iragarkia jendaurrean jar-tzea 30 egun balioduneko epean, alegazio ondorioetarako.
- 3.- Jendaurreko erakustaldi denboraldian, inolako erreklamazio edo alegaziorik aurkeztuko ez balitz, akordioa behin betikoa bihurtzat joko da espreski hartutako akordio berri baten beharrik gabe.

VI.- ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALAREN AKATSEN ZUZENKETA.-

Lazkaoko Udal Planeamenduaren Hiri Antolaketako Arau Subsidiarioen lehen alda-keta puntuala, 3.5.2 artikulua, nekazaritza ustiatzei buruzkoa; 1.1.2 artikulua, lurzorua-ren hirigintza erabileren edukari buruzkoa; eta Ibabe-Pingon AIU2ren hirigintza araudi be-rezian xedatzen denari buruzkoa, 2017ko apirilaren 25ean izan zen hasierakoz eta 2017ko irailaren 26an behin behingoz onartua. Udal tramitazioaren ondoren, eta Eusko Jaurlari-tzako Lurralde Antolaketa Departamentuaren aldeko txostena jaso ondoren, dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundira bidali zen honek behin betiko onarpenari buruz ebatzi zezan.

Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi du behin betiko onarpena eman diola doku-mentu honi, baina dokumentuak jaso beharreko akats zuzenketa batzuk eskatu ditu.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatutako zuzenketa hauek AA.SS.en aldaketa pun-tualaren dokumentuan jaso dira.


Hau guztia honela eta gaia Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako batzordean informa-tua izan ondoren, zuzendutako dokumentua, bere espedientearen dagoena, Osoko Bilkurara ekartzen da bere onarpenerako, eta Osoko Bilkurak, aho batez, eta legezko gehiengo oso-aren aldeko botoekin, honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- AA.SS.en lehen aldaketa puntualaren dokumentuaren akatsen zuzenketa onartzea.
- 2.- Honela zuzendutako dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea.

VII.- GURUTZEKO BIRRURBANIZAZIOKO 4. FASEKO LANEN 4. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

Gurutzeko berrurbanizazioko 4. faseko lanen obra zuzendaritza daramaten Pedro Izaskun arkitektoak eta Estibaliz Igartua arkitekto teknikoak, laugarren obra egiaztagiria egin dute. Laugarren obra egiaztagiri honen zenbatekoa LAUROGEITA HIRU MILA HIRU-REHUN ETA LAUROGEI EURO ETA BERROGEITA SEI ZENTIMO (83.380,56 €) takoa da. Lanak, Iparragirre S.L., Orsa S.L. eta Iturrioz S.A.k osatutako A.E.B. ari da burutzen.

Udal arkitekto teknikoak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.



Honen aurrean, Osoko Bilkurak, hirigintza obra eta zerbitzuetako batzordearen proposamenaren aurrean, aho batez, Gurutzeko berrurbanizazioa, 4. fasea lanen laugarren obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko zazpiak eta hogeita hiru direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

